

Herri Pedagogia

Izenburu honen azpian biltzen dira, gizartean bizi zen klase sozialen arteko burruka eskolan birsortzen zela planteatu eta horren aurrean alternatiba pedagogikoak formulatzen dituzten autoreak eta mugimenduak. Heuren hitzetan, "aberatsen pedagogiari herri pedagogia kontrajartzen zaio", herri pedagogia hau haurren ekintza naturalean eta sozializatuan zentratzen delarik.

FREINET, Celestin (1896-1966)

Datu biografikoak

Frantzes.

Majisteritza ikasketak egin zituen.

Lehen gerrate Mundialean, Verdunen zauritua gertatu zen (1916).

1920. urtean, Frantziako hegoaldean, Bar-sur-Loup herriko eskolan irakasle aritu zen. Hemen irakasle lana beste modu batera nola bideratu bilatzeari ekin zion, haurren beharrezan arabera eta berak jasaten zuen egoera fisikoari egokitua, artean oso ahul baitzegoen. Eskola honetako haurrak izan ziren testu libreak idatzi zituzten lehenak. Hauen idatzien eta adierazmenaren lekukotza jasotzeko inprimategi bat asmatu zuen, haurrek beraien erabiltzeko modukoa. Irakaskuntza Laikoaren Kooperatiba sortu zuen 1927. urtean.

1928. urtean Saint Paul de Vence herrian irakatsi zuen, arik eta 1935. urtean irakasle izatea debekatu zitzaion arte.

Irakaskuntza pribatuan babestu zen, eta Vencetik gertu -baserri giroan- eskola bat martxan jarri zuen. Bertan, bere metodo berriak gauzatu zituen: tanteo esperimentalean eta lanaren bidezko hezkuntzan oinarrituriko metodoak, hain zuzen ere.

Bigarren Gerratearen ondoren, 1947. urtean, Vencetako eskola berriro ireki zuen.

Berak sortutako beste bi erakunde jarraitu dute bere lana: Eskola Modernoaren Lankidetzarako Erakundea; eta Eskola Modernoen Mugimenduaren Nazioarteko Federakuntza.

Jatorrizko eraginak

Freineten esperimentazioak berak erakutsi zion norabidea: bere egoera pertsonala, herritar jendea, eskolako baliabide urriak, frantzes eskola-sistema funtzionariala eta hierarkikoa, testuliburu ofizialen desegokitasuna, garaiko askapen-ideolojiak...

Eskola Berriaren mugimendutik at kokatu zen: gizarte kapitalistaren eraginak ez zituelako kontuan hartzen (klase soziala=eskola mota); pedagogo berriak intelektualistatzat jotzen zituen (teoriatan gelditzen ziren); ingurune sozialarekiko menpekotasuna ahazten zelako; eginkizun eta jolas artifizialci gehiegizko garrantzia eman zitzaiolako.

Idea nagusiak

Freineten idea nagusiak, honelaxe laburbildu daitezke:

- "Haurren mugikortasuna eta Bizitzaren mugimendua, joan-etorri dialektikoan ari dira. → dialektikotasuna
- "Haurren naturarengan konfidantza izan behar da Bizitz et de liburu
 - Bizitzeko, egokitzeko eta ekintzarako izugarritzko ahalmena du" Ekintzaren erabiltza
- "Eskola, haurren beharrezan zentratu behar da"
- "Eskolak, kritikoa, zientifikoa eta ikertzailea izan behar du"
- "Haurrari hitza eman behar zaio, lan kooperatiboan oinarrituz"
- "Irakaslea, ez da hezitzailea, laguna baizik" (irakaslearen erabiltza)
- "Aberatsen pedagogiari, herri pedagogia kontrajarri behar zaio"
 - haurren ekintza naturala eta sozializatua da muina

Hezkuntzari eginiko ekarpenak

Freineten ekarpenik handienak, izan zituen ideei emandako eduki teknikoak izan dira:

- teknika tipografikoa
 - * haurra integratzeko eta sozializatzeko bitarteko gisa
 - * beti jolas-lanetik lanera pasatuz
- testu librearen teknika, eta...
 - * eskolarteko posta-komunikazioa
 - * kalkulu bizia
 - * lan-liburutegia eta artxibategia
 - * marrazki librea
 - * bizitzaren liburua

Iradokizun kritikoa

- * Teoriko eskasa izan delakoan uste zabala da.
- * Maixutza erakutsi zuen irakasle tekniketari.